

B28

Laztan enea, naygaran...

Poema hau *paraklausithyron* motakoa da: maitearen atearen aurrean haren arretea eske eginiko negarra. Maiteari ez dio asko eskatzen: soilik kasu egitea eta bere maitasunaren berri izatea.

Aipatu behar da eranskin honetako *Ene lastan çuri ederra* (B28: 11 eta B33: 5) berdin-berdin agertzen dela B13: 1 bertso-lerroan ere, hots, eskuizkribu nagusiko poema batean.

Bi hamarreko dira, ondoko ahapaldi-egitura honekin: bakoitiak 8 (edo 9) silabakoak eta bikoitiak 7 (edo 8) silabakoak, – a – a – a – b – b errimarekin.

[1204r] Laztan enea,¹ naygaran²
sure³ atean⁴ arteti;

¹ *Laztan enea*: ‘Ene lazтана’; izenlaguna eskuinetara dago. Hitz-ordena hori sei aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *Ama enea seme бага / çuc ifinico al doçu* (AL: 1144r), *Ama eneaen seme bagueaz / oy çuc cer probechu doçu?* (AL: 1144r), *Silviac / damu andia oy eben artu / bioz berean, menetan* (AL: 1147r), *ama bereaen* (A25: 32), *begui neureoc lausotu* (B27: 6) eta *Laztan enea* (B28: 1).

² *naygaran*: ‘igaro nadin’; aditz honen partizipioa beti (bi aldiz) da *irago* eskuizkribuan (AL: 1153r eta A14: 97); aditz-izena beti (lau aldiz) da *iragaite*-, *iragaiterren* (AL: 1146r), *iragaiten* (A2: 19, A17: 70, B15: 44); baina testuko aditz trinko bakarrak kontsonanteen metatesia dauka: *naygaran* (B28: 1). *OEH*ko sarrera (s.v. *igaro*) interesgarria da, hala *igaro / irago* alternantziari dagokionez, nola aditz trinkoari dagokionez: “La forma *igaro* es casi general en guipuzcoano, y en vizcaíno es prácticamente la única documentada hasta finales del s. XVII y frecuente desde entonces. ***Irago (documentado ya en Landuccio y Nicolás de Zubia)***, es la única variante que encontramos en el s. XVIII (*msOñ* (235r), Arzadun, Barrutia, Urquizu, Gamiz (206)); en el XIX es bastante frecuente: Moguel (tbn. *igaro*), fray Bartolomé, Astarloa, Arrese Beitia (tbn. un ej. de *iragotu* (*AmaE* 449)), Iturzaeta; en el s. XX sólo se encuentra en Lauaxeta (*AB* 58); pero cf. *infra* IGAROKO. Fuera del vizcaíno, emplean *irago* Larramendi (*Cor* 300), Xenpelar (191), F. Goñi y E. Arrese. **Se encuentran formas fuertes en los Refranes de Garibay y Bertso Bizkaitarrak (en ambos *aigara*), y en Refranes y Sentencias (*digaran* (231), con suf. de relativo)**; en el s. XX algunos autores (Lauaxeta (*BBa* 76), L. Jauregi (*Biozk* 4), Gaztelu (*MusIx* 83)) recrean formas fuertes como *digaro*. El sust. vbal. *iragaite*- lo emplea Capanaga (part. *igaro*), e *iragaite*- Urquizu (tbn. *iragote*- (57); part. *irago*); hay *igaroite*- en *CatLlo* (96) y *CatBus* (57), siendo en ambos *igaro* el part. En *DFrec* hay 156 ejs. de *igaro*”.

³ *sure*: Estibaliz Sasiolakoaren poemez osaturiko eranskinean, ugari dira txistukarien nahasketak: *esin* (B27: 16, B27: 17), *es* (B27: 21), *estaguiçula* (B27: 25), *sure* (B28: 2), *çaytesque* (B28: 3), *sacusquedan* (B28: 4), *estaquistanean* (B29: 5), *estet* (B29: 7), *lastanarequin* (B30: 3), *equzten* (B30: 25), *gustiac* (B31: 3), *naguci* (B31: 4), *equci* (B31: 6), *lastan* (B33: 5), *flordeliçac* (B33: 13), *joci* (B33: 15), *Guipuscoaco* (B33: 18), *Gastelaco* (B33: 20), *gustiac* (B33: 35). Eskuizkribuko testu nagusian, berriz, soilik *desesperanças* (A1: 46) eta *esperanças* (A17: 31) aurkitu ditugu, eta Martin Lopez

arren, aguir çaytesq[ue⁵

sacusquedan⁶ leyotic.⁷

Egun artan nic ez ne[yque⁸

5

munduan liçan⁹ vearri[c.¹⁰

Speranceaç bici oy¹¹ n[aiz

erri oneçaç atean;¹²

Bikuñaren poemetan *negarres* (B8: 4) eta *bearres* (B8: 8), instrumentalaren markaren lekuan <-s> txistukari apikaria dutela.

⁴ *atean*: ‘atearen’ nahiz ‘ateen’ izan daiteke, genitibo singularra nahiz plurala izan baitaiteke.

⁵ *aguir çaytesq[ue*: ‘ager zaitex (geroan)’; geroaldiko agintera. Geroaldiko agintera oso ohikoa da *Refranes y Sentencias* bizkaierazko atsotitzen bilduman (çe *eyquec maurtuti hoeaneâ, eder eztanica calean* RS 36, *Gach çe erexqueoc yñori, ta emac vereâ edoceyni* RS 312), eta aztergai dugun Lazarragaren testuan: çe *eucaiqueçu* (A27a: 24), *sinis eçaqueçu / ene eguia* (B9: 13-14), *Jentil onbrea, ona çatozque, / gura banoçu gozadu* (B12: 11-12) eta *arren, aguir çaytesq[ue]* (B28: 3). Bizkitartean, ez dirudi soilik mendebaldeko euskararen ezaugarria izan denik, gipuzkera eta lapurtera zaharrean (Etxeberri Ziburukoa eta Etxeberri Sarakoa) ere biltzen baitira gisa horretako formak.

⁶ *sacusquedan*: ‘geroan ikus zaitzadan’; *ekusi* aditzaren geroaldiko subjuntiboa. Cf. orobat *gura deusut aguindu / gure errico abantajaoc / daiqueçula cantadu* (A6: 6-8), *cegaiti artu ez daiquean* (A14: 99), *Conjuraetan oy eta çaitut, / oean çaucidenean, / gogaberatu çaquezquedala / beguioz nacusunean* (A16: 85-88), *Conjuraetan oyta diçut, / gorpuceango araguioç, / nigana manso dacarqueçula / ceure beguicho lindo bioc* (A16: 97-100). Lazarragaren testutik kanpo, beste behin baizik ez da lekukotzen geroaldiko subjuntiboaren erabilera, beste arabar baten testuan, Perutxoren kantan hain zuzen: *Esso[c] amor[e]ari / gajo nachala / y penas naçala / jatorquedala* (TAV 102-104).

⁷ *leyotic*: ‘leihoan zehar’; eskuizkribuko *-tik* atzizki bakarra da.

⁸ *ez ne[yque]*: ‘ez negike, ez nuke egingo’; *egin* aditzaren forma trinkoa.

⁹ *liçan*: ‘izan ledin’; *izan* aditzaren subjuntibo trinkoa.

¹⁰ *vearri[c*: ‘errurik’; Lazarragaren eskuizkribuan, sei lekutan aurkitu dugu *bear* ‘erru’ (A16: 10, A27a: 22, B8: 8, B20: 33, B21: 36 eta B28: 6). Cf. *OEH*, s.v. *bear*: “‘Culpa, bearra’, ‘culpar, bearr egotzi’ Lcc. *Odol bearbagea, agirtuko da egia eurea*. “Sangre sin ser necesaria [traducción incorrecta por ‘sin culpa’] descubrir se ha la tu verdad”. RS 208. *Ez dauko Peru Garziak bearrik / Ain gatx andia apukadua gatik*. “No tuvo culpa”. TAV 3.1.5, 17s. *Gu nagitzen bagera, gurea da bearra edo kulpa*. Mg CC 189 (CO 284 *geuria izango da erruba*)”.

¹¹ *oy*: ‘ohi’; Lazarragaren eskuizkribuan, hamabi aldiz ulertu dugu *oy / oi* partikulak ‘ohi’ adierazten duela: *egon oi da* (A14: 46), *oy ninduan penadu* (B12: 4), *Gabaz-egunaz oy nituan / aren atear rondadu* (B12: 5-6), *nic jagui bear oy dot oçac ilic* (B15: 48) eta *Bezpera artan gentez oy da / ayuntamiento andia* (B22: 19-20), *Eleiçara juen oy naiz, / eguin oy det becatu* (B27: 1-2), *Avemaria asi baice, / ecin oy det notatu* (B27: 3-4), *ofrendara dianean / ondo oy det miratu* (B27: 9-10), *Speranceaç bici oy n[aiz] / erri oneçaç atean; / sperancea galdu oy det / errira natorrenean* (B28: 7-10).

¹² *erri oneçaç atean*: ‘lurralde, herrialde honetatik kanpo’; cf. Lcc “conquistar tierras, *erriac yrabaçi*”. Cf. orobat *OEH*, s.v. *ate*: “2. (V-ger-ple-arr-m, G-bet, B, L-ain ap. A; Lcc, Mic, Aq 1379, H (-th-)), **at** (BeraLzM), **ataz**. Ref.: A; A *Apend*. Fuera; (precedido de sintagma nominal con suf. -z o -tik) fuera (de), aparte (de). “Fuera, a lugar, *atera*”, “de fuera, *aterean*”, “hacia fuera, *aterutz*” Lcc. “Fuera, *atetik*” Mic. [...]. *Tr*. Empleado en la tradición vizcaína antigua y por algunos autores labortanos clásicos, siempre con algún sufijo de declinación. A partir de mediados del s. XVII sólo se encuentra en las formas *aterontzean* y *aterontzeko* en Ubillos y Arrue (que emplea alguna vez *ateronz*) y *aterako* en

sperancea galdu oy det¹³

errira natorrenean.

10

[1204v] Ene lastan çuri ederra,¹⁴

çure laztan ni banari,¹⁵

contu estua emango digoçu¹⁶

Ceruetaco Jaunari,

munduan dirian¹⁷ podere oro¹⁸

15

Lardizabal. A principios del presente siglo y siguiendo la propuesta de Azkue empieza a utilizarse la forma *ate*, y posteriormente *at*, como sustitutivo de *kanpo*”.

¹³ *det*: *de-* moldeko **edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan (eta gehienak Estibaliz Sasiolakoaren poemetan agertzen dira): *det* (A5: 26, B27: 2, B27: 4, B27: 10, B28: 9, B29: 4), *dedan* (B30: 18), *badeçu* (A16: 70, A28: 168), *deçun* (A26: 90), *estet* (B29: 7) . Gutxi dira, orobat, *du-* eta *deu-* moldeetakoak.

¹⁴ *Ene lastan çuri ederra*: Eskuizkribuko beste bi lekutan ere badago bertso-lerro hau: *Ene laztan çuri ederra* (B13: 1) eta *ene lastan çuri ederra* (B33: 5).

¹⁵ *banari*: ‘banadi, bihurtzen banaiz’; formari dagokionez, eskuizkribuan bakarra da *-d-* > *-r-* aldaketa duena (hemen errima eginez), baina ugari dira gipuzkerazko testuetan. Adizki hau, A6: 19ko *balidi* bezala, **edin* trinkoki jokatu da eta ‘bihurtu, bilakatu’ esanahia du. Erabilera horren adibide apurak testu arkaikoenetan baizik ez dira lekukotzen: *asto dina zordun* (RS 249) “el que se haze fiador, deudor”, *Lotsaga nindin, oguiz ase nindin* (RS 263) ”Sinvergüenza me hize, y artême de pan”, *Jesus sidin guizon* (VJ 5).

¹⁶ *digoçu*: ‘diozu’. Eskuizkribuan *-g-* antihiatikoa duten beste adizki batzuk agertzen dira: *digot* (B27: 18), Sasiolakoarenetan, eta *nagon* (A7: 71, A21: 5, A21: 17, A21: 25, B21: 97), Lazarragaren poemetan. Bestalde, horrelako formak ez dira inola ere ezezagunak testu zaharretan, bereziki gipuzkerazkoetan: “Guztioec **digoe** borondatez seguicen” (*Bretainiako kanta*), “bere ese guztiak ofrezizen **digoe**la egunean bein oraziorean bazuk” (Azkoitiko ordenantzak, 1614), “memorian gorde debozio emaiten **digon** puntu batreanbat” (*ibid.*), “esan bear **digoe** Aytari edo perfectoari kausea” (*ibid.*), “Jaungoikoari erreguzen **digoe**la” (*ibid.*), “eta ezteve porfiadu bear baña bai esan euren parezera eskazen **digoe**nean lanezarekin” (*ibid.*); “eta oen contra eutci **cigon** Crutceari virtute andia gueure defensaraco, eta amparoraco”, (Otxo Arin, 1713, *Doctrina cristianaren explicacioa*), “gueuere animari vizitza ematen **digona**” (*ibid.*), etab.; “baña zer esango **digot**, oñazez, damuz, miñez gañez egiñik badago? Graziaren eskatzeak gogoratuko **dig**o bere dolore guzien asiera ta jaiotza” (Larramendi, 1737, *Azkoitiko sermoia*), “Otsegingo ote **digot** Aita eternoari?” (*ibid.*), “zergatik bada bere izena aitatu ta esan **etzigon** *Aue Maria*, ta zergatik ezkutatu **zigon** izen eder au?” (*ibid.*), etab.

¹⁷ *dirian*: ‘diren’; Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean : *doa + -an > doean* (RS), *daroa + -an > daroanean* (VJ) (cf. FHV 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138v, B30: 6), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B15: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B3: 65, B16: 31, B16: 44), *guinean* (A7: 8, B16: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B16: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroeala* (B16: 16), *eroeanari* (A29: 74), eta *-ea-* > *-ia-* aldaketarekin *dirian* (B28: 15). Ohar gaitezen Landuccic aditz gutxi dakarrela eta zaila dela gertakizun honi buruzko ondorioz ateratzea, baina bada

escuan dituanari.
 Bacinaqui gogoa,¹⁹
 lastana bioçecoa:
 ç]ure minez ilgo banaiz,
 laudatu Jaun Cerucoa.

20

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

3 arren] esk. *aren*. || çaytesque] esk. *caytesq. ca-* hasieraren ondoren *qui* tatxaturik; hots, *çaqui-* jartzera joan zen. *-ue* ez da ikusten, orria eskuineko aldetik apurtuta dagoelako. **5** neyque] *-yque* ez da ikusten, orria eskuineko aldetik apurtuta dagoelako. **6** liçan] esk. *lican*. || vearric] *-c* ez da ikusten, orria eskuineko aldetik apurtuta dagoelako. **7** Sperançeaç] esk. *sperançeac*. || naiz] *-aiz* ez da ikusten, orria eskuineko aldetik apurtuta dagoelako. **8** oneçaç] esk. *oneçac*. **11** çuri] esk. *curi*. **15** munduan] esk. *muandan*. **19** çure] ç- ez da ikusten, orria ezkerreko aldetik apurtuta dagoelako.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B28 – Laztan enea, naygaran...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

adibide bat behintzat iradokitzen duena Landuccirenean ez bide dela halakorik gertatzen (“antecedente, *aurrera doana*”). Hauxe da testu osoan aurkitu dugun *-ea-* > *-ia-* bakarra.

¹⁸ *oro*: Bi aldiz aurkitu dugu *oro* eskuizkribuan, biak Sasiolakoaren poemen eranskinean: *podere oro* (B28: 15) eta *dacustan ordu orotan* (B29: 3). Cf. *OEH*, s.v. *oro*: “Al Sur se encuentra en textos antiguos: en una carta navarra del s. XV, en *RS*, Isasti y Beriayn (en la construcción *-(e)n oroz*)”.

¹⁹ *Bacinaqui gogoa*: ‘bazeneki gogoa, oxala nire gogoaren jakitun bazina, jakin ezazu nire nahia’; *bazinaqui* aditza, hemen, botiboa da; hainbat esaldi botibo aurkitu ditugu eskuizkribuan *ba-* aurrizkiarekin: *Ascotan, çu bacina pedernala, / edo ni sufriceco baninz achez!* (A17: 103-104), *Nic ayn on baneu bozau* (A17: 119), *Oraciotan beti nago: / osoac ayta jan balegui!* (A19: 39-40), *Podere baneucaique tenplaceco* (B20: 15), *Bacinaqui gogoa* (B28: 17). *Bazinaki* forma aurkitu dugu Agirre Asteasukoarenean eta Mogelen gipuzkerazko testuetan.



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago